

Euskara eta Hezkuntza Saila

## **EUSKARA ZUZENDARIORETZA**

# **Jardueren fitxak**

<b>PROGRAMA</b>	<b>UDAL ADMINISTRAZIOA</b>
<b>NOIZTIK</b>	<b>1985</b>
<b>NON EGITEN DEN</b>	<b>Udal administrazio osoa</b>
<b>IRAUPENA</b>	<b>2013-2017, planaren 5. fasea</b>
<b>ORDUTEGIA</b>	
<b>NORENTZAT</b>	<b>Udal langileak</b>
<b>2015EKO ADJUDIKATARIOA</b>	<b>Labayru ikastegia + itzulpen enpresak</b>
<b>2015EKO AURREKONTUA</b>	<b>121.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Administrazio elebidunaren bidean Euskararen Erabilera Plana dago martxan 1999tik

**HELBURUAK:**

Udal administrazioa elebidun izatea herritarrak hizkuntza ofizial bietako edozeinetan artatzeko baldintza berdinetan.

Langileak euskaraz gaitzeko trebatze saioak antolatzen dira, baita zinegotzi-zuzendarientzat ere, ez euskalategi baten planteamenduarekin baizik eta lanean euskaraz aritzeko helburu zuzenarekin.

**BALORAZIOA:**

Administrazioa euskalduntzea da Udalaren eta gure ardura nagusia euskararekiko, gaur egun gure lanaldiaren ordu kopuru gehiena udalerrian eskaintzen ditugun programetan gauzatzen den arren.

Udalaren euskarazko aurpegia itzulpenek osatzen dute, ez langileek burututako euskarazko lan jardunak.

Planaren motorra trebatze saioetan parte hartzeko eskaria egiten duten udal langileak dira.

**ETORKIZUNEAN:**

Euskararen bulegoa teknikoki arduratu arren, Udalak hartu behar du konpromiso instituzionala bere administrazioaren esparruan euskara normalizatzeko, honetarako hauxe proposatzen dela:

- 1) Euskararen bulegoa guztiz zeharkakoa izatea organikoki (kalitatea den bezala, adibidez).
- 2) Giza baliabide gehiago bulegorako.
- 3) Euskara udalerrian bultzatzeko eguneko programazioa horretarako dauden sailetara pasatzea (Kultura, Gazteria, Hezkuntza, ...).
- 4) Planaren betearazpenaz etengabe arduratuko den ikuskaritza sortzea.
- 5) Itzultzearen ordez, gai diren langileen kasuan zuzenketaz arduratzea lehentasunezko laguntza tekniko moduan.

<i>PROGRAMA</i>	<b>IKUSI ETA IKASI</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2005</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>UDALTEGIAK, ESKOLAK</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>URTARRIL-MARTXOA</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>ASTE BARRUAN ARRATSALDEZ, LARUNBATETAN GOIZEZ</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>UMEAK (2-8 URTE)</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>92.200.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Umeei eskainitako programazio deszentralizatu, urtarril-martxo bitartekoa, etxetik hurbil eta barruti guztietan, merkatuan diren ikuskizunik onenekin eta Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean. Umeak eramaten dituzten gurasoentzako hainbat ekitaldi antolatzen dira, tailer edo hitzaldi moduan.

**HELBURUAK:**

Euskararen erabilera modu ludikoan eta umeen giro akademikotik kanpoko esparruetan.

**BALORAZIOA:**

Ikusleen aldetik harrera oso ona, normalean aforoak beterik, baita gurasoen zein umeen balorazioetan ere. Barruti bakoitzean dauden udal instalazioek baldintzatzen dute ikuskizunaren tamaina eta ahalmen teknikoa, onerako zein txarrerako.

**ETORKIZUNEAN:**

Pentsa daiteke denboraldia luzatzeaz, beti ere ikuskizunen kalitatea zainduta. Luzapen naturala urri-abendua litzateke, udaberriko hiru hilabeteen eskaintza zabalagoa tarteko ume ugari bestelako jardunetan ibiltzen delako.

<i>PROGRAMA</i>	<b>HARRAPA ZANK</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2006</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>UDALTEGIAK, BILBOROCK, EUSKARAREN ETXEA</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>ABENDU-APIRILA</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>ASTE BARRUAN, BARIKU ARRATSALDEZ ETA LARUNBAT GOIZEZ</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>GAZTETXOAK (9-18 URTE)</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>94.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Gaztetxoei eskainitako programazioa oinarri nagusi biren gainean: beraien zaletasunak kontuan hartuta eta beraien parte hartze zuzenak bideratuta.

Gune artistiko desberdinak proposatzen dira, aurkezpena egiten zaie eta gaztetxoek izena ematen dute.

Izena emandakoen artean kastinak egiten dira eta hortik ateratzen dira ikastaroan, aditu batek gidaturik, landuko dutena. Landutako horrekin osatzen dutena galan eskaintzen dute, ikusleen aurrean eta onenak saria irabazi.

**HELBURUAK:**

Euskararen erabilera zuzena beraien gustuko kontuetan, ikasgelako girotik urrun. Web gunearen bitartez mugitzen dira informazio eta mezuen esparruan.

**BALORAZIOA:**

Orain arte protagonistek, gaztetxoek, oso ondo baloratu dute eta iradokizunak kontuan hartuak izan dira.

**ETORKIZUNEAN:**

Duela bi urte inkorporatu ditugu programara 9-12 urte bitartekoak, nahikoa salduta ibiltzen direnak ze ez dira ez ume ez gazte. Beraiengan bereziki pentsatutako ekimenak ugaritu beharko lirarteke.

<i>PROGRAMA</i>	<b>MIKOLETA IPUIN LEHIAKETA</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>1989</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>IKASTETXEETAN, ETXEETAN, ARABIAI ARETOAN</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>ABENDU-MAIATZA</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	
<i>NORENTZAT</i>	<b>8-16 URTE BITARTEKOAK</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>KALHO MEDIA argitalpena + epaimahikideak + saridunentzako oparien saltzaileak</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>16.000.-</b>

<p><b>DESKRIBAPENA:</b>  Bilbon erroldatutako ume eta gaztetxoei eskainia, partaidetzak gora egin du eten gabe, idazlan kopurua 900 inguruan egonkortu arte, 2014ko salbuespenarekin 1.264 aurkeztuta. Ipuin ilustratuak dira eta praktikan parte hartzaile gehienak eskolaren bitartez egiten dute. Sari banaketa udaletxeko Arabiar Aretoan alkatea bertan dela, eta saritutako lanekin liburuak argitaratzen da, parte hartzaile guztien artean eta Bilboko eskola guztietan doan banatzen dena.</p>
<p><b>HELBURUAK:</b>  Txikien artean irakurtzeko eta idazteko zaletasuna indartzea, euskarazkoa gure kasuan. Sari banaketak eta argitalpenak baloratu egiten ditu eta prestigioa eman euskaraz idatziko ipuin horiei.</p>
<p><b>BALORAZIOA:</b>  Parte hartzeak hartu duen bolumena positiboa da oso, tartean irakasleek egiten duten lana eskertzearekin batera. Sari banaketan irakasleek ere izaten dute beraien tartetxoa.</p>
<p><b>ETORKIZUNEAN:</b>  Gauzak ondo doazenean -badira XXVII edizio- ez da aldaketa handirik komeni.</p>

PROGRAMA	<b>GALDEKETAUN</b>
NOIZTIK	<b>2014</b>
NON EGITEN DEN	<b>APLIKAZIO INFORMATIKOA MUGIKORRETAN</b>
IRAUPENA	<b>URRI-ABENDUA</b>
ORDUTEGIA	
NORENTZAT	<b>GAZTEAK</b>
2015EKO ADJUDIKATARIOA	<b>SUSPERGINTZA</b>
2015EKO AURREKONTUA	<b>12.000.- EURO</b>

**DESKRIBAPENA:**

Teknologia berriek gazteen arteko komunikazioa duten garrantziaz oharturik, eta aurreko lehiaketaren bidea -*Bilblogari*- nahikoa zahartu eta agorturik, Bilbori buruzko galdetegia osatu da eta mugikorretan erabilgarri den aplikazio informatikoan txertatu, gehien asmatzen dituztenentzako sariekin.

**HELBURUAK:**

Gazteen artean euskararen erabilera zuzena bultzatzea beraien egunero erabiltzen dituzten tresnen bidez, horrek euskarari ematen dion prestigioa kontuan hartuta.

**BALORAZIOA:**

Aurreko lehiaketaren segidako ekimen berriak nahikoa arrakasta lortu du lehen edizioan, oraingoz jarraitzeko moduan ze teknologia berrien kontu hau oso bizkor doa.

**ETORKIZUNEAN:**

Adi egon behar merkatuak gazteei eskaintzen dien produktuekin bidea edo bide aldaketa erabakitzeko orduan.

<i>PROGRAMA</i>	<b>BIRIBILKO</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2007</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>Bilboko merkataritza esparruan</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>urte osoa</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	
<i>NORENTZAT</i>	<b>Merkatari interesatuak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>SIADeco</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>76.828,31.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Bilboko merkataritza eremuak inguru zabalean duen garrantziaz oharturik, Biribilko plana esparru horretan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko tresna da, hiru ardatza nagusi: komunikazioa, irudia eta formazioa, tartean web gunea eta formazio eskolak direla.

**HELBURUAK:**

Zerbitzu elebiduna eskaintzea merkatalgoaren kalitateari lotuta ezaugarria dela demostratzea, gutxienez bezeroaren hizkuntza eskakizunari erantzungo dion mailara helduta, horretarako eta beren beregi interesatuentzat formazio ikastaroak urtero antolatzen direlarik.

**BALORAZIOA:**

Krisiaren ondorioz osatutako direktorio berriari esker euskararen normalizazioan interesatuak nortzuk diren jakin da, eta ikastaroen eskaintza egin. Urtero ari dira 150 bat saltzaile euskara ikasten merkatarientzako pentsatutako modulu berezian, Bilbao Ekintzarekin lankidetzari esker eta HABEK eskola berezi horietarako eman duen laguntzaz batera.

**ETORKIZUNEAN:**

Behin formazio ikastaroak finkatuta, hizkuntza arloan gauzatu daitezkeen ekimenen inguruko komunikazioa -merkatariena zein berauen elkarteena- sustatzea da helburu nagusia, irudi bateratu baten gerizpean.

<i>PROGRAMA</i>	<b>EMAN GILTZA</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2001</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>Ume jaio berrien gurasoak (sentiberatzeko kanpaina)</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>Urte osoa</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	
<i>NORENTZAT</i>	<b>Ume jaio berrien gurasoak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>18.374,63 euro</b>

<p><b>DESKRIBAPENA:</b>  Jaio diren umeen gurasoentzako oparitxoa: liburuxka eta DVDa umeentzako esaldi eta jokoekin, mezua garbia jakinarazten: mundura etorri diren lehenengo egunetik euskararekin harremanetan egoteak zer garrantzi handia duen azpimarratuta.  Bizkaiko Foru Aldundiak udaletako euskara zerbitzuak koordinatzeko eta elikatzeko sortutako Alkarbide izeneko foroan gauzatzen dira bai kanpaina hau bai sentiberatzeko gainerakoak.</p>
<p><b>HELBURUAK:</b>  Ume jaio berriak hasiera hasieratik euskal inguru batean murgilduta egoteko garrantzia azpimarratzea gurasoei.</p>
<p><b>BALORAZIOA:</b>  Material egokia tarteko, harrera ona izaten du sentiberatze kanpaina honek. Gurasoek eskertu egiten dute.</p>
<p><b>ETORKIZUNEAN:</b>  Alkarbide foroaren koordinazio lana oso egokia, bai kanpaina diseinatzeko bai zabalkunderako.</p>

PROGRAMA	<b>D bitamina</b>
NOIZTIK	<b>2001</b>
NON EGITEN DEN	<b>Bi urteko umeen gurasoak (sentiberatzeko kanpaina)</b>
IRAUPENA	<b>urria</b>
ORDUTEGIA	
NORENTZAT	<b>Bi urteko umeen gurasoak</b>
2015EKO ADJUDIKATARIOA	
2015EKO AURREKONTUA	<b>5.441,50.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Bi urte betetzen duten umeen etxeetara D ereduaren aldeko propaganda zabaltzen da, zinegotziaren mezua eta oparitxo bat barruan, neurgailu bat umea zein arin hazten den aitortzen duena, eta web gune baten berri zalantzak argitzeko.

Alkarbidek koordinatua Bizkaiako udaletako euskara zerbitzuen artean.

**HELBURUAK:**

Eskolaratze garaia heltzen denean egundoko garrantzia izango du umearentzat zein hizkuntza eredutan ikasiko duen, bilbotar askoren kasuan horrexek erabakiko duelako elebiduna izango den ala ez. Euskarazko aukeratzea da helburua, horrek bermatuko duelako ik berriaren elebitasuna.

**BALORAZIOA:**

Zenbakiak ikusita -Bilbon D ereduak da aukeratuena alde handiz- positiboa da balorazioa, aldeaz aurretik jakinda gurasoen erabaki horretan beste faktore askok eragiten duela.

**ETORKIZUNEAN:**

D ereduaren hautua nahikoa finkatuta dagoen arren, egokia da Udaletik gogoratzea hezkuntzako hizkuntza ereduak gerora izango duen eragin positiboaren abantailak, are gehiago oraindik hizkuntza nagusia duen Bilbo inguru honetan.

<i>PROGRAMA</i>	<b>Nahi DuDalako</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2001</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>DBHko 4. mailako ikasleak (sentiberatze kanpaina)</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>otsaila</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	
<i>NORENTZAT</i>	<b>DBHko 4. mailako ikasleak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>4.996,48.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Behin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) amaituta ikasle batzuk Batxilergora jotzen dute eta beste batzuk Lanbide Heziketara, azken hauen kasuan sarri gertatzen delarik D ereduari ibilitakoak A ereduari jarraitzea. Ikasle hauek etxean hartzen duten foiletoak - informazio zehatzaren web gunerako zutia- gogoratzen die D ereduari jarraitzeak duen garrantzia, lan munduan norberaren bilakaeran eragina izango duena. Alkarbideak koordinatua Bizkaiako udaletako euskara zerbitzuen artean.

**HELBURUAK:**

DBH amaituta D ereduko ikasleek eredu berean jarraitze, bereziki Lanbide Heziketakoek hauen artean gertatzen delako D-tik A-rako nahikoa aldaketa ugaria.

**BALORAZIOA:**

Ez dakigu noraino eragiten duen kanpaina honek baina beharrezkotzat jotzen dugu D ereduari ikasle kopuru galera gertatzen den bitartean.

**ETORKIZUNEAN:**

Web gunea hobetu behar da etengabe, eta eguneratu, kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak asmoa duela Lanbide Heziketan -egoeraz oharturik- orain arte ez zegoen B ereduari abiatzeko.

<i>PROGRAMA</i>	<b>ZINEA EUSKARAZ</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>1991</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>Golem zinema Alondegia- Karmen aretoa</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>Urri-maiatza</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>Eskola ordutan</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>TINKO – IRUDI BIZIAK</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>12.750.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Merkatuan diren ume zein gaztetxoentzako pelikulak eskaintzea ikastetxeen bitartez. Ikusitako pelikularen inguruan hausnarketa egiteko eta eztabaidatzeko materiala lantzen dute ikasleek.

**HELBURUAK:**

Kalitatezko pelikulak euskaraz pantaila handian eta modu erreflexiboan ikusteko ohitura sortzea, horrek ikasleen mentalitatean euskarari ematen dion prestigioa tarteko.

**BALORAZIOA:**

Eskari masiboa urterik urte errepikatzen da ikastetxeen aldetik, egutegiak betez.

**ETORKIZUNEAN:**

Ematen du zerbitzua ematen duten elkarte biak etengabe eguneratzen dutela eskaintza eta irakasleen ondo baloratzen dutela ekimena.

<i>PROGRAMA</i>	<b>GURASOENTZAKO LAGUNTZAK</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>1989</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>euskaltegiak</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>urte osoa</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>gurasoek aukeratua</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>ume txikien gurasoak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>Guraso interesatuak, ezarritako baldintzak betez gero</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>164.900.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Gurasoak estrategikoak dira hizkuntzaren berreskurapenerako eta Bilboko kasua da euskarazko irakaskuntzan ari diren ume askoren gurasoak ez direla euskaldunak. Udalak laguntza ekonomikoa ematen die seme-alaben erritmo bertsuan euskaldundu daitezzen.

**HELBURUAK:**

Euskarazko irakaskuntzan ari diren ikasleen etxeko harremanetan euskararen erabilera bultzatzeko ezinbestekoa da gurasoen maila seme-alaben mailara hurbiltzea.

**BALORAZIOA:**

Bada urte pare bat laguntza emateko formula aldatu genuela eta orain gurasoek matrikula osoa ordaindu eta ikastaroa amaituta itzuli egiten die Udalak aprobetxamenduaren arabera. Hala ere, 248 izan dira azken ikasturtean laguntza hartu dutenak.

**ETORKIZUNEAN:**

Ematen du laguntza egokia dela, lehengo ikasturtetik modu proportzionalagoan ematen dena gainera, 2/3 ematearen formula bakarretik gaingidutako urratseko ematera pasa garelako

Dena dela, komenigarria ikusten dugu euskara ikasteko diru-laguntzen esparrua zabaltzea euskararen berreskurapenean estrategiko izan daitezkeen beste jarduera batzuetara, aisialdi eta kirol begiraleak esate baterako.

<i>PROGRAMA</i>	<b>ZORTZIKO TXIKIA</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>1991</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>eskolak-ikastolak-ikastetxeak</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>Ikasturte osoa</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>Eskola ordutan</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>Goi mailako Lehen Hezkuntzako ikasleak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>Bizkaiko Bertsozale elkarteak</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>90.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Bertsolaritzak badu eta bada. Badu halako kutsu ludikoa ume eta gaztetxoak hizkuntzara erakarri dezakeena aditz koadro batek baino errazago. Eta bada euskal kulturaren erakuslea, ahozko tradizioaren gordailu eta transmisore. Horregatik 10-11 urteko neska mutikoei asteko saioa ematen zaie ikasturte osoan zehar bertsolaritza ezagutu eta hitzekin jolasteko aukera ematen duena.

**HELBURUAK:**

Bilbo aldean euskararen arlo akademiko gramatikala hain sustraitua egonik, ikasleentzako aire freskoa dakar bertsolaritza moduko esparrua euskararen jabekuntzan eta motibazioan.

**BALORAZIOA:**

Irakasleek oso modu positiboan hartu dute beti, oso lagungarri hizkuntzaren aldetik.

**ETORKIZUNEAN:**

Jarraitzea eta, ahal den neurrian, programa hobetuz. Ikasturte bukaerako topaketa ikasle guztiei zabaltzea litzateke hobekuntzetako bat, orain arteko Bilborock aretoa txukuna bai baina aforo txikikoa da.

<i>PROGRAMA</i>	<b>IKASARRAUNA</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2005</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak - erreka</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>Ikasturte osoa</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>Eskola ordutan</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>DBH-ko ikasleak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>Euskal Herriko Ikastolak</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>21.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Euskal kirol tradizionalen berri ematea, hizkuntza aldetik duten berezitasuna landu eta praktikan jarri. Saioak ikastetxean bertan eta gero praktika errekan arraunaren kasuan.

**HELBURUAK:**

Gure kulturaren berri izatea, hizkuntzarekin duen lotura zuzena azpimarraturik eta modu praktikoan gainera.

**BALORAZIOA:**

Irakasleek ondo baloratzen dute, eta ikasleek bereziki arraun saio praktikoa, beraientzat esperientzia guztiz berria delako askok inoiz errepikatuko ez dutena.

**ETORKIZUNEAN:**

Jarraitzea, etor daitezkeen nobedadeak txertatuta beti ere euskal kirolen inguruan.

<i>PROGRAMA</i>	<b>KLASIKOAREN IRAKURKETA</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2008</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>Arriaga Antzokia</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>12 orduz</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>8:00-20:00</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>400 irakurle</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>Bilbo Zaharra euskaltegia</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>20.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Aukeratutako obra klasiko euskarazkoa etengabe eta jarraian irakurtzen da jendaurrean maiatz-ekainean. Aldez aurretik obraren eta egilearen inguruko hitzaldiak eta mahai inguruak antolatzen dira. Antzokiaren ondoko karpan erakusketa, kontzertu, hitzaldi eta abar gauzatzen dira irakurketa aurreko egunetan eta egunean bertan.

**HELBURUAK:**

Euskal literatura ezagutaraztea, euskara ikasten dabiltzan helduak omentzea eta gure hizkuntzari prestigioa ematea.

**BALORAZIOA:**

Urterik urte bai antolamenduan bai hedabideetako oihartzunean gora egin du ekimenak.

**ETORKIZUNEAN:**

Oso ideia garatua da, Bilboko kultura agendan oso urte gutxitan klasiko bihurtu dena.

<i>PROGRAMA</i>	<b>BERBAGUNEA</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2012</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>alondegia</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>Egun bat</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>9:30-18:30</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>2.000 lagun</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>Bilboko euskaltegien sarea</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>12.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Euskaldunak euskaraz berba egiten batzen dira leku jakin batean, aldez aurretik antolatutako 4 txandatan (9:30, 11:00, 12:30, 17:00), txandako 500 lagun, seiko mahaietan 20 minutuko hiru gai lantzen dutela, gaitik gaira mahaiz eta solaskidez aldatuta.

**HELBURUAK:**

Euskararen erabilera kalera ateratzea modu masiboan, hiriaren erdigunean eta izen ospetsu batzuk tarteko.

**BALORAZIOA:**

Hiru edizioen ostean esan daiteke finkatu egin dela ekimena, hedabideetan gero eta oihartzun handiagoa. Inportantea Bilboko euskaltegien sarearekin elkarlanean antolatzea.

**ETORKIZUNEAN:**

Urterik urtera 1.200-1.600-2.000 lagun batu dira. Azken edizioan gehiegi beharbada, ekimenak eskatzen dituen mugimenduen kaltetan. Kopuru txikiagoa baino aurpegi ezagunekin hedabideetan eragin bera edo handiagoa lortzen da.

<i>PROGRAMA</i>	<b>MINTZAKIDE</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2009</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>Interesatuak aukeratua</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>Urte osoa</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>Interesatuak aukeratua</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>Goi mailako ikasleak - euskaldunak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>Ulibarri euskaltegia</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>15.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Beraien inguru naturalean euskara erabiltzeko aukera gutxi duten goi mailako euskarazko ikasle helduak bikoteka batzen dira, astean behin normalean, euskara ondo dakien boluntario batekin, biek adostutako gai edo interesgune baten inguruan, 200 lagun inguru ikasturteko.

**HELBURUAK:**

Ikasgelak elikatutako hizkuntza jabekuntza kaleko egoera normalago batean erabiltzea, goi mailako ikasle hori euskal hiztun bidean kokatzen duena. Ikasketa naturala ikasketa kulturalaren osagarri.

**BALORAZIOA:**

Ikasle interesatuen kopurua mantendu egin da lehen ediziotik.

**ETORKIZUNEAN:**

Bilbon helburu berarekin dagoen esperientzia bakarra ez den arren, komeniko litzateke ekimen honen onuradunak ez mugatzea euskaltegi antolatzailearen ikasleen kolektibora, beste eremu batzuetara zabaltzea.  
Bereziki inportantea boluntario euskaldunen zerrenda handitzea, aberastasunaren bermea.

<i>PROGRAMA</i>	<b>DARABILBO</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2013</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>Bilboko auzoak</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>ikasturtea</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	
<i>NORENTZAT</i>	<b>Euskara erabiltzeko beharrezana duten helduak eta gazteak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>Bilboko euskaltegien sarea</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>30.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Euskara modu zuzenean erabiltzeko ekimenen programa, auzoetan garatzen dena. Hamaika jardun desberdinak osatzen dute, museora egindako bisitatik hasi eta gastronomia saioa batean bukatzeko.

**HELBURUAK:**

Bilboko egoera soziolinguistikoan zaila zaie batzuei ikasitako euskara erabiltzeko egoerak topatzea. Ekimen honen bidez aldeko egoera horiek probokatu egiten dira eta, hizkuntza helburu bai, baina bide batez eduki eta esperientzia berrien atea ere bada Darabilbo.

**BALORAZIOA:**

Gustu guztietako eskaintza izatean parte hartzaile kopuruak gora egin du orain arteko edizioetan, eta beraien iritzia positiboa izan da.

**ETORKIZUNEAN:**

Programak intentsitaterik galdu gabe, urte guztira zabaltzea litzateke helburua, beti ere euskaltegien sarearekin elkarlanean. Gero eta parte hartzaile gehiago ez izatea euskaltegetako oraingo ikasle seinale ona litzateke.

<i>PROGRAMA</i>	<b>EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2003</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>Udaletxeko Arabiar Aretoa</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>Abenduaren 3ko ekitaldia</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	<b>goizez</b>
<i>NORENTZAT</i>	<b>gonbidatuak</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>1.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko eguna ospatzen da eta Bilboko Udalak ekitaldia antolatzen du, alkatea buru. Urtero azpimarratzen da ekitaldian Bilbon euskararen alde ibilitako bai pertsona bai talderen bat.

**HELBURUAK:**

Herritarrei gogoratzea euskara oraindik ez dela hizkuntza normaldua, gutxitua baizik, bere lurraldean.

**BALORAZIOA:**

Azken urteetan biderkatu egin dira erakunde publiko, elkarte pribatu eta igorle askoren mezua euskararen eguna dela azpimarratzen, mota guztietakoak.

**ETORKIZUNEAN:**

Ospakizun eraginkorra izateko bidean, nolabaiteko koordinazioa beharko litzateke, ekitaldiak pilatu eta ekimenak errepikatuzetik harantzago joateko.

<i>PROGRAMA</i>	<b>ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>1986</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>Udalerrri osoan</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>urtea</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	
<i>NORENTZAT</i>	<b>Bilbon euskararen normalkuntzan eragiten duen edozein elkarterentzat</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>Diru-laguntzen deialdia</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>138.600.-</b>

**DESKRIBAPENA:**

Bilboko Udalak urtero plazaratzen duen diru-laguntzen deialdi orokorraren barruan euskara Zuzendaritzak bereak ateratzen ditu, hiru eremuri zuzenduak: 1) eskola munduko ikastetxe zein guraso elkarteak, 2) Euskara normalizatzea helburu nagusi duten elkarteak, 3) bestelako elkarteak.

**HELBURUAK:**

Bilbon lanean ari diren elkarteei laguntza ematea euskara bultzatzeko egiten duten ahaleginean, aurkezten diren ekimen eta egitasmo anitz eta aberatsei.

**BALORAZIOA:**

Udalaren laguntza ezinbestekoa elkarteentzat, euskara bultzatzeko ekimenetan behintzat.

**ETORKIZUNEAN:**

Udalarekin duten kontabilitate harremanetik harantzago, koordinaziora jotzea; adibidez, elkarteek antolatzen dituzten ekimen horiek guztiak Udalaren informazio bideetatik plazaratu eta publizatu.

<i>PROGRAMA</i>	<b>HITZARMENAK</b>
<i>NOIZTIK</i>	<b>2003</b>
<i>NON EGITEN DEN</i>	<b>udalerrian</b>
<i>IRAUPENA</i>	<b>urtea</b>
<i>ORDUTEGIA</i>	
<i>NORENTZAT</i>	
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>Euskaltzaindia (15.750.-), Azkue Fundazioa (57.600.-), Labayru ikastegia (6.950.-), Suspergintza (7.500.-), BIGE (Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkartea) (6.950.-), EHI (Euskal Herriko Ikastolak) (13.300.-)</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>108.050.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

Aipatutako erakundeei aurrera daramaten lanean lagundu egiten zaie, beraien jardunaren barruan Bilbori zuzenki dagozkion gai eta ekimenetan.

**HELBURUAK:**

Hain lan eskergea egiten duten erakundeak laguntzea eta bide batez Bilboren ondarea eta marka euskararekin eta euskal kulturarekin lotzea.

**BALORAZIOA:**

Harremanak onak dira, eta hitzarmena izatean erakunde onuradunek badakite zenbateko diru-laguntza izango duten aurrekontua onestearekin batera, deialdi orokorraren gorabeheren zurrunbiloan sartu barik. Egonkortasuna ematen die honek.

**ETORKIZUNEAN:**

Hitzarmenaren formula egokia da kasu hauetan. Elkarreentzako esan duguna, are gehiago bost erakunde hauetarako: koordinazio handiagoa eta Bilbon gauzatzen duten programen publizitatea egitea Udalaren bideetatik.

<i>PROGRAMA</i>	<b>EKITALDI BEREZIAK (2015)</b>
<i>NOIZTIK</i>	
<i>NON EGITEN DEN</i>	
<i>IRAUPENA</i>	
<i>ORDUTEGIA</i>	
<i>NORENTZAT</i>	<b>Zabalik bilbotar guztiei</b>
<i>2015EKO ADJUDIKATARIOA</i>	<b>AEK (30.000.-) – Euskal Herriko ikastolak (30.000.-)</b>
<i>2015EKO AURREKONTUA</i>	<b>60.000.- euro</b>

**DESKRIBAPENA:**

2015 urtean KORRIKA19 Bilbon bukatu da martxoaren 29an eta IBILALDIA maiatzaren 31an izango da.

**HELBURUAK:**

Euskararen aldeko ekitaldi masiboak laguntzea, bai diruz bai antolamenduaren aldetik.

**BALORAZIOA:**

Euskararekin zerikusi zuzena duten ekitaldi masiboetan Bilbok protagonismoa izatea, oso positiboa.

**ETORKIZUNEAN:**

Antolatzaileek ikusi dezatela Bilboren egokitasuna holako ekitaldietarako.

## AURKIBIDEA

Udal administrazioa	2
Ikusi eta Ikasi	3
Harrapazank	4
Mikoleta ipuin lehiaketa	5
Galdeketaun	6
Biribilko	7
Eman giltza	8
D bitamina	9
Nahi DuDalako	10
Zinea euskaraz	11
Gurasoentzako laguntzak	12
Zortziko txikia	13
Ikasarrauna	14
Klasikoaren irakurketa	15
Berbagunea	16
Mintzakide	17
Darabilbo	18
Euskararen Nazioarteko Eguna	19
Elkarteentzako laguntzak	20
Hitzarmenak	21
Ekitaldi bereziak	22